


Gaizka Areitioaurtena

"10 urte dira Tour-a jarraitzen dudala"

Ogibidez irakaslea izan arren oso txikitatik dugu txirrindularizale ermuar hau. Gogoan omen du oraindik 6 urterekin Areitiotik Gabika txirrindulari haundia pasatzen ikusi zuela. Uztaila iristearekin batera Tour-eko ibilbidea aztertzen hasi eta Pirineotako etapez gain, Alpeetan ere joan ohi da. Igor Astarloa, Gorka Arrizabalaga, Pedro Horrillo oso gertutik jarraitu izan ditu betidanik eta hoi ez gain, gainontzeko txirrindulariek ere sarri ezagutu izan omen dute noizbait aldapan gora edaria eskaini izan dielako. Hori da, zaletu gisa, txirrindulariei eskaintzen duten ikuskizunaren truke eskertzeko era bakarra.



- Tour-era joateak Santixauetan kanpoan zarela esan nahi du...

9 lan uste dut izango zela. Urte mor-doa neraman Tour-era joan nahian, baina ezin izaten nuena Santixauetako alardean dantza egiteko ohitura bainuen. Urte hartan azkenean Tour-era joateari lehen-tasuna ematea erabaki nuen.

- Tour osoa ez duzue jarraituko...

Ez. Normalean Pirinio eta Alpeetako etapak jarraitzen ditugu. Egutegia eta etapen nondik norakoa aztertu eta zenbait egun lehenago ateratzen gara. Tour-eko etapez gain Frantzia ere ezagutzeko aprobetxatzen dugu.

- Gure herriko txirrindulariak aspal-ditik jarraitzen dituzu...

Igor nire ikaslea izan zen Ikastolan eta aspal-ditik ezagutzen dut. Txirrindulari azkarra eta sakrifikatua da.

Praderak aurtan izugarritzko Tour-a egin du eta indar haundiko txirrindularia da.

●so gregario ona. Gorka ere ondo mol-datu da, aurreneko aldiz Tour-ean izan eta bukatu izanak asko esan nahi du. Horrillok zortea ez du lagun izan baina lan polita egin du.

- Aurtan ●lanok agur esango dio txi-r-rindularitzari...

Izugarritzko txirrindularia izan da. Aurtan txispa gabe ikusi dut baina garai egokian utziko duela uste dut.

- Txirrindularitza aitzaki, urrutien joan zaren herria?

Belgikako herrixka batean izan ginen Igorrek jubenil mailako Munduko txapelketan parte hartzen zuelako. Horrez gain, Paris-Roubaix ospetsuan ere izana naiz. Horrillok zikin-zikin egindako mailota oparitu zidan.

- Miresten duzun txirrindulari bat?

Nortasun handiko txirrindulariak izan ditut gustoko Criquelion eta Fignon esate baterako.

- Aldapan gora edaria eta janaria emateko ohitura omen duzu...

Gure bidaian Koka Kola eta barra energetikoak betidanik eraman izan ditugu txirrindulariei eskaintzeko. Beraien esfortzua eskertzeko era, hori dela uste dut.

- Urte hauetan izandako anekdota xebrereren bat?

Gogoan dut Alpe D'Huez nintzela, gendarme bat hurbildu zitzaidala ikur-rinarekin ikusi baininduen. Nire harri-durarako euskaraz mintzatzen hasi eta Zuberotarra zela esan zidan.

Asier Ibaibarriaga

IKASTOLA
33 urte Ermua
euskalduntzen

TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko

IN FREN
TABERNA

PRO

- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

ESKANTZA BEREZIA OSTIRALERO

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA